

Berrikuntza
Innovación

IES MUNGIA BHI

Kulturaniztasunean elkarrekin bizitzeko eta prestatzeko modua

Mungia Institutua Bizkaiko erdi-erdian dagoen NBERen egoitza txikiaren modukoa da. Nahiz eta bere ikasle gehienak euskaldunak diren, gero eta gehiago dira Japonia, Maroko edo Kolonia bezalako urrutiko lurraldeetatik etorri eta bere gletan ikasten duten gazteak. Ikastetxearen errealitate kulturalitz eta eleanitzak duela urte gutxi batzuk ikasle etorkinak eskolatzeko Hobekuntza Plana martxan jartzea eragin zuen, "Ikaskuntza Komunitateak" proiektuaren barnean, ikasle guztiek eskolan arrakasta izatea, elkarbizitza hobetzea eta gizarteratzea bilatzen duena.



Cómo convivir y formarse desde la multiculturalidad

El instituto Mungia es como una pequeña sede de la ONU en el corazón de Bizkaia. Aunque la mayoría de sus alumnos son vascos, cada vez es más alto el número de jóvenes inmigrantes de lugares tan alejados como Japón, Marruecos o Colombia que estudian en sus aulas. La nueva realidad multicultural y multilingüe del centro llevó hace pocos años a la puesta en marcha del Plan de Mejora de la Escolarización del alumnado inmigrante, que dentro del proyecto Comunidades de Aprendizaje, busca el éxito escolar de todos y cada uno de los alumnos, la mejora de la convivencia y la inclusión social.

Sira Ayarza zuzendaria

"Ez dugu Ikaskuntza Komunitateak proiektua abian jarri etorkinak daudelako. Badira aldeak ere bertako ikasleen artean hezkuntzari dagokionez" "

Sira Ayarza directora

"No hemos puesto en marcha las Comunidades de Aprendizaje porque haya emigrantes. Las diferencias educativas también se dan entre el alumnado autóctono"

Mungiako BHI oso ikastetxe konplexua da. Hiru eraikinek osatzen dute, eta bertan, 720 ikaslek ikasten dute eta 110 irakasle DBH, DBHO, ziklo eta LTZko klaseak ematen dituzte. LOGSEa ezarri zen arte, ordea, Batxilergoko ikastetxea, LHkoa eta Mungiako Lehen Hezkuntzako azken bi ikasturteak bananduak zeuden bata bestearengandik. Hiru ikastetxe horiek elkartzean IES Mungia BHI sortu zen, eskualdeko ikastetxe publiko bakarra, inguruko herri askotako ikasleak jasotzen dituen.

Bertako irakasle batzuek adierazten dutenez, elkarketa honek irakasleen artean bereizketa, desadostasun eta ziurtasun-gabezia sentimendu bat sorrarazi zuen, ikastetxearen eta irakasleen klastroaren beraren tamaina berria zela eta. Horri guztiari bertako ikasleen aniztasuna gehitu behar zaio; gainera, gero eta handiagoa zen ikasle etorkinen kopurua eta ikastetxeak ezin zion behar bezala erantzun gero eta jatorri eta helburu ezberdinagoak zituen ikasleria aldakor honi.

Irakasleek eskola-elkarte osoa bilduko zuen heziketa proiektu komun baten beharra ikusi zuten. Aurreko ikasturteetan "aniztasunari arreta" deituriko hainbat proiektu berritzaile jarri ziren martxan, baina ez zuten funtzionatu. Are gehiago, ikastetxeak, bere osotasunean, ez zuen hobera egiten, eskola-porroteko kasuak gorantz zihoazen eta gelen kudeaketa gero eta zailagoa zen.

2001-2002 ikasturtean, bigarren hezkuntzako eta batxilergoko irakasleak eredu ezberdinen inguruan prestatu eta informazioa ere eman zuten. Hausnarketarako aldi baten ostean eta behin prestakuntza trinkoa amaituta, 2003ko irailean, DBHko lehen zikloa, bereziki, "Ikaskuntza Komunitateak" proiektuari batu zitzaion, bere alor teorikoa Ramón Flechak garatu zuelarik, Bartzelonako Desberdintasunak Gainditzeko Teoria eta Praktiken Ikerketa Zentroan.

Arrazakeria gainditzeko

"Ikaskuntza Komunitateak" hezkuntza aldaketarako proiektua da eta aukera ematen du arrazakeria eta gizarte-bazterketa gainditzeko, komunitatea osatzen duten kultura ezberdinen artean berdintasunezko harremanak sustatuz.

Bere koordinatzaileak, Lorea Aretxaga, dioenez "proiektu honen bidez, ikastetxeko ikasleen hezkuntzan dauden aldeak, modu ezberdinean heziak izan direlako, ez dira hezkuntza-ezberdintasun bihurtzen. Ikastetxea antolatzeko ereduak sustatzen ditugu, eskolan guztiek lor dezaten arrakasta eta kulturen arteko elkarbizitza hobea izan dadin".

Ikastetxeko zuzendari Sira Ayarzak honakoa eranstean du: "Ez dugu 'Ikaskuntza Komunitateak' proiektua abian jarri etorkinak daudelako. Hau aurretik geneukan proiektua da. Badira aldeak ere bertako ikasleen artean hezkuntzari dagokionez". Geletan integratzeko praktikak martxan jartzerakoan talde elkarreragileen bidez eta irakasleak aldi berean gelan daudela egin ohi da. Asmoa talde elkarreragileen bidez ikasteko erritmoa biziagot-

El IES de Mungia es un centro escolar de gran complejidad. Lo componen tres edificios en los que estudian 720 alumnos y 110 profesores imparten clases de ESO, ESPO, ciclos y SAT. Hasta la implantación de la LOGSE, sin embargo, el centro de Bachillerato, el de FP y los dos últimos cursos de la Educación Primaria de Mungia eran independientes unos de otros. De la unión de estos tres centros surgió el IES Mungia BHI, el único instituto público de la comarca, que recibe estudiantes de un gran número de localidades próximas.

Según explican varios de sus profesores, esta fusión provocó un sentimiento de fragmentación, desencuentro e inseguridad en el profesorado, dadas las nuevas dimensiones físicas del centro y del propio claustro de profesores. A esto hay que añadir la diversidad del alumnado autóctono, así como el hecho de que el número de estudiantes inmigrantes era cada vez mayor y que el centro carecía de respuestas adecuadas a este alumnado cambiante y cada vez más diverso en procedencia y expectativas.

Los docentes vieron la necesidad de un proyecto educativo común que abarcara a toda la comunidad escolar. En cursos anteriores se habían desarrollado varios proyectos de innovación catalogados como de "atención a la diversidad", pero no funcionaron. Es más, el centro en su totalidad no mejoraba, los casos de fracaso escolar aumentaban y la gestión de las aulas se iba poniendo cada vez más difícil.

En el curso 2001-2002, gran parte de los profesores de secundaria y bachillerato se formaron e informaron sobre diferentes modelos. Tras un tiempo de reflexión y finalizado el periodo de formación intensiva, en septiembre de 2003, el primer ciclo de la ESO, fundamentalmente, se adhirió al proyecto de Comunidades de Aprendizaje, cuyo marco teórico desarrolló Ramón Flecha en el Centro de Investigación en Teorías y Prácticas Superadoras de Desigualdades, de Barcelona.

Superar el racismo

Las Comunidades de Aprendizaje es un proyecto de cambio educativo que posibilita la superación del racismo y la exclusión social, promoviendo relaciones igualitarias entre las diferentes culturas que integran la comunidad.

Su coordinadora, Lorea Aretxaga, explica que "a través de este proyecto, las diferencias educativas que cada alumno lleva al centro porque se ha educado de manera diferente, no terminan en desigualdad educativa. Potenciamos maneras de organizar el centro para conseguir el éxito escolar de todos y la mejora de la convivencia intercultural".

La directora del centro, Sira Ayarza, añade: "No hemos puesto en marcha las Comunidades de Aprendizaje porque haya inmigrantes. Este era un proyecto anterior. Las diferencias educativas se dan también entre el alumnado autóctono". La puesta en marcha de prácticas inclusivas en las aulas se lleva a cabo mediante grupos interactivos y con la presencia de dos profesores en el aula al mismo tiempo.

A través de los grupos interactivos se pretende acelerar el ritmo de aprendizaje aumentando las interacciones entre iguales. Los grupos formados (una vez por semana en diferentes áreas-clase) son de cuatro o cinco alumnos y heterogéneos en género, nivel de aprendizaje y origen cultural, a fin de que las interacciones sean más variadas. Las actividades se desarrollan duran entre 15 a 20 minutos y todo el alumnado pasa por todo el grupo. "Dado que las actividades varían, los alumnos no tienen tiempo de aburrirse. Son ellos los protagonistas. La interacción es muy importante y el profesor y los adultos voluntarios sólo son colaboradores, no sueltan ningún discurso", explica Lorea.



zea da, berdinen arteko elkarrekintza handituz. Taldeak (aste-an behin esparru-gela ezberdinetan) lau edo bost ikaslek osatu ohi dituzte eta, generoari, ikasmailari eta jatorri kulturalari dagokionez, heterogeneoak dira, elkarrekin era askotakoa izan dadin. Egin beharreko jarduerak 15-20 minutuko iraupena izan ohi dute eta ikasle guztiak talde guztietatik igarotzen dira. "Jarduerak ezberdinak direnez, ikasleek ez dute aspertzeko astirik. Haiek dira protagonistak. Elkarrekintza oso garrantzitsua da eta irakaslea eta heldu boluntarioak laguntzaileak besterik ez dira, ez dute hitzaldirik ematen", adierazten du Loreak. Era berean, nabarmendu beharra dago hizkuntza sendotzeko irakaslearen papera, ikasle etorkinak eskolatzeko Hobekuntza Planaren tresnetariko bat –familia etorkinak hartzeko planarekin eta kulturen arteko batzordearekin batera–, eta Luis María Landaluzek koordinatzen duena, eta honela dio: "hizkuntza sendotzeko baliabideak ditugu, gaztelania eta euskaraz, bi irakasleekin, eta haiek, gelan, batez ere edukien bidez, ikasleek hiztegiarekin edo ulermenarekin izan ditzaketen zailtasunak sendotzen laguntzen dute, esaterako, Gizarte Zientzietan, Natur Zientzietan... Behar duten ikasleei gelatik atera gabe laguntzeko aukera ematen digu, eta era berean, talde osoari ere laguntzeko".

Hizkuntza sendotzeko irakaslea laguntzako plan honen lorpenetariko bat da. "Gure zeregina ikasleak kontzeptuak ikasi ahalak hizkuntza ere ikastea da", dio Landaluzek, "ezin daitekeena egin da ikasleak hizkuntza ikastea, gero DBHko irakasgaiak ikas ditzan, izan ere, ez genuke ezer ere lortuko".

"Erantsi beharra dago", dio Lorea Aretxagak, "hizkuntzako laguntza oso leku gutxitan ematen ari dela hemen bezala. Guk ez dugu ikaslea gelatik ateratzen, taldetik urruntzen delako". "Estatu espainiarrean alderantzizkoa gertatzen ari da, etorkinen gelak dira lotura moduan erabiltzen direnak", adierazten du Luis María Landaluzek.

Mungia BHko "Ikaskuntza Komunitatea" familiei eta ikasleei eskainitako bana-banako harreraren bidez, ikastetxea komunitateari zabaltzearen bidez, batzorde mistoen bidez, kulturen arteko jardunaldien bidez eta irakasleen prestakuntzaren bidez ere garatzen da..

Hay que destacar también la figura del profesor de refuerzo lingüístico dentro del aula, uno de los instrumentos –junto con el plan de acogida a familias inmigrantes y la Comisión Intercultural– del Plan de Mejora de la Escolarización del alumnado inmigrante, coordinado por Luis María Landaluz, quien explica que "disponemos de recursos de refuerzo lingüístico, en castellano y en euskara, con dos profesores, quienes, en el aula, sobre todo a través de los contenidos, refuerzan los problemas de vocabulario o comprensión que puedan padecer estos alumnos, por ejemplo en Ciencias Sociales, Naturales,... Nos permite ayudar a los alumnos que lo necesitan sin tener que sacarlos del aula, y apoyar igualmente a todo el grupo".

La figura del profesor de refuerzo lingüístico es uno de los grandes logros de este plan de apoyo. "Lo que hacemos es que el alumno aprenda el idioma mientras aprende conceptos", señala Landaluz, "no debemos esperar a que el alumno aprenda el idioma para que luego aprenda las asignaturas de la ESO, ya que si no, no conseguiríamos nada".

"Hay que añadir", señala Lorea Aretxaga, "que el refuerzo lingüístico en pocos sitios se está dando como aquí. Nosotros no sacamos al alumno de clase, porque se le aleja del grupo". "En el Estado español está ocurriendo lo contrario, las aulas de inmigrantes son las que sirven de enlace", añade Luis María Landaluz.

La Comunidad de Aprendizaje del IES Mungia se desarrolla también a través de la atención personalizada a las familias y al alumnado, la apertura del centro a la comunidad, las comisiones mixtas, las jornadas interculturales y la formación del profesorado.



Luis María Landaluz
koordinatzailea

"Hizkuntzari laguntzeko baliabideek aukera ematen digute behar duten ikasleei gelatik atera gabe laguntzeko, eta era berean, talde osoari ere laguntzeko"

Luis María Landaluz
coordinador

"Los recursos de refuerzo lingüístico nos permiten ayudar a los alumnos sin necesidad de sacarlos del aula y apoyar a todo el grupo"

18 hizkuntza eta 21 nazionalitate

Ikastetxean irakasten diren euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesaz gain, Mungiako BHIn beste 14 hizkuntza hitz egiten dira: alemana, kitxua, errumaniera, eslovakiera, portugesa, fanga, kreolera, tunisiarra, brasildarra, japoniera, txekiera, berberea, arabiera eta guaraniera.

"Ikaskuntza Komunitateak" martxan jartzeak, nahiz eta azken helburuak lortzetik urrun egon, emaitza bat edo beste lortzen ari da. Horren frogak da Gernika Gogoratzuz Bakearen Ikerkuntza Zentroak egindako azken galdeketeak ikasleen artean etorkinak ez direla baztertzen adierazten dutela.

Bestalde, Sira Ayarzak, ikastetxeko zuzendaria, dio "gure xedea ikasle guztiak ikastetxetik bigarren hezkuntzako tituluarekin irtetea da. Batxilergoan 22 ikasle etorkin eta heziketa zikloetan beste 8 izateak, horien artean neska marrokoar bat egonik, nik uste nahiko ondo islatzen duela ikasle hauek aurrera egin dezaketela, bertakoek bezala.

18 idiomas y 21 nacionalidades

Además de euskara, castellano, francés e inglés, los idiomas que se enseñan en el centro, en el IES de Mungia se hablan otros 14 idiomas: alemán, quechua, rumano, eslovaco, portugués, fang, criollo, tunecino, brasileño, japonés, checo, bereber, árabe y guaraní.

La puesta en marcha de las Comunidades de Aprendizaje, aun estando lejos todavía de alcanzar los objetivos finales, está obteniendo ya algún pequeño resultado. Prueba de esto es que las últimas encuestas realizadas en el instituto por el Centro de Investigación por la Paz y Transformación de Conflictos Gernika Gogoratzuz indican que entre el alumnado no hay rechazo al inmigrante.

Por otro lado, Sira Ayarza, directora del centro, señala que "nuestro objetivo es que todos nuestros alumnos salgan del centro con el título de secundaria. Hablar de 22 alumnos inmigrantes en bachillerato y 8 en ciclos formativos, entre estos una chica marroquí, a mí me parece que refleja bastante bien que este alumnado puede salir adelante, como el autóctono".

